



LUIS INTXAUSPE AROZAMENAK, Garbitania Zero Zabor S.M. sozietateko Administrazio Kontseiluko idazkariak, honako hau

ZIURTATZEN DU

Garbitania Zero Zabor S.M.ko Administrazio Kontseiluak, 2018ko abenduaren 10ean agindako bilkuran ondorengo ERABAKIA hartu zuela:

1.- Hernaniko eta Usurbilgo udalerrietan selektiboki jasotako bio-hondakinen transferentzia zerbitzua kontratatzeke behin behineko esleipena erabakitzea.

Aipatu zerbitzua kontratatzeke espedienteari hasiera emateko eskaera egitea erabaki zen 2018ko uztailaren 11an egindako Administrazio Kontseiluan. Eskaera egun horretan onartu zen eta ondoren, kontratazio mahaiak plegu administratiboak eta teknikoak prestatu zituen, 2018 irailaren 20an egin zen Administrazio Kontseiluak (Kontratazio organoa) onartu zituenak. SPKL-ak bere 156 artikuluan arautzen duen prozedura irekia tramitatu eta lizitazioaren iragarkia 2018ko irailaren 21ean argitaratu zen Garbitaniaren webgunean eta Euskadiko Kontratazio Plataformako kontratatailearen profilean. Lizitazioa hutsik gelditu zen eta hala aitortu zuen kontratazio organoak urriaren 29an egindako Administrazio Kontseiluan. Saio berean kontratazio mahaiak idatzitako plegu berriak onartzea erabaki zen. Iragarki berria azaroaren 6an argitaratu zen aurretik erabilitako baliabideak erabilia.

Eskaintzak jasotzeko epearen barruan eskaintza bakarra jaso zen:

1. Traeco Ingurumena, S.M.

Eskaintza hau kontratazio mahai osatzen duten zerbitzu juridikoak, Ingurumen Teknikariak, Koordinatzaile batek eta langileen ordezkari batek, Usurbilgo Udal Zerbitzu saileko zinegotziak eta Hernaniko Udal Ingurumen saileko zinegotziak, aztertu dute.

Lehenengo eta behin pleguetan eskatzen diren administrazio dokumentuak behar den bezala aurkeztu diren aztertu da eta ondoren dokumentazio teknikoaren gutun azala irekitzera jo da.

Eskaintzan aurkeztutako dokumentazioa nahikoa izan da balorazio teknikoa burutzeko. Proposamen teknikoaren balorazioari dagokionez, lan metodologia, ibilgailuen ezaugarriak eta formakuntza eta ingurumenaren zaintza sustatzeko hartutako neurriak aztertu dira. Atal horretan eskaintzaileak 12 puntu lortu ditu.

Eskaintza bakar honekin puntuen kalkulua burutu da, Plegu Administratiboetako 16. Atalean zehazten den moduan.

Eskaintzaileak, lizitazio gehienezko prezioaren (485 EUR) azpitik egin du bere eskaintza (465, 60EUR) beraz, eskaintza ekonomikoari 60 puntu dagozkio. Horrez



gain, C gutun azalean puntuagarri diren agiriak aurkeztu ditu, zehazki ibilgailuen eta kontenedoreen propietatea egiaztatzen dituzten agiriak eta ISO agiriak. Beraz, modu automatikoan kuantifika daitezkeen gutun azalean bidalitakoari 83 puntu dagozkio.

Eskaintza	Eskaintza ekonomikoa	Isurketen aurrean ahalmena	Containerra ordezkatzeko ahalmena	ISO agiriak	Lan metodologia	Ibilgailuak eta formakuntza	Ingurumenaren zaintza	PUNTUAZIOA GUZTIRA
1	60	10	10	3	6	5	1	95

Taula honetan zehazten den moduan, eskaintzaileak guztira 95 puntu lortu ditu.

Oro har aurkeztutako eskaintzak dagozkion pleguetan eskatutakoa betetzen ote duen aztertu da. Azterketa horren ondorioz ziurtatzen da aurkeztutako eskaintzak betetzen dituela eskatutako betebeharrak.

Eskaintza egokia izan dela kontuan izanik, kontratazio mahaiak Administrazio Kontseiluari Traeco Ingurumena, S.M. esleipenduntzat hartzea proposatzen dio.

Gauzak horrela, Garbitania Zero Zabor S.M.ko Administrazio Kontseiluak abenduaren 10ean burutu bilkuran, kontratazio mahaiaren eskariz aho batez honakoak adosten ditu:

Lehenengoa.- Hernaniko eta Usurbilgo udalerrietan bio-hondakinen transferentzia zerbitzua burutzeko Traeco Ingurumena S.M.ri esleitzea, 465,60EURO/asteko zerbitzuko salneurrian (BEZ kanpo).

Bigarrena.- Traeco Ingurumena, S.M. enpresari erabakia jakinaraztea eta eskatzea agiri hauek (administrazio klausula partikularren 19. Puntuan jasotzen direnak) aurkeztu ditzan jasotzen diren agiriak **eskaera hau jaso eta hurrengo egunetik hasita hamar (10) lanegunen barruan:**

- Enpresariaren jarduteko gaitasun osoa ziurtatzen dutenak.
- Eskatzen den kaudimen ekonomiko eta finantzarioa egiaztatzeko beharrezkoak diren agiriak.
- Eskatzen den kaudimen tekniko eta profesionala egiaztatzeko beharrezkoak diren agiriak.
- Indarreko xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen dituztenak.
- Kontratua gauzatzeko beharrezko dituen eta atxikitza konprometitu den baliabideak benetan badituela ziurtatzen duten agiriak.
- Laneko arriskuen prebentzioari buruzko dokumentazioari dagokionez honakoak:
 - Enpresak hartu duen prebentzioaren antolaketa moduaren ziurtagiria.
 - Lan arriskuen ebaluazioa, bere jarduerari dagokiona.



- Beraien lanpostuan aritzeko langileen mediku-gaitasun ziurtagiriak (osasun zaintza).
 - Langileek, egiten duten jarduerari buruzko beharrezko informazioa eta prestakuntza jaso dutela egiaztatzen duen ziurtagiria.
 - Langileen lanpostuen jardueretarako beharrezkoak diren Norbera Babesteko Ekipamenduen entrega ziurtagiria eta hauek erabiltzeko beharrezko informazioa eta prestakuntza jaso dutela egiaztatzen duen ziurtagiria.
 - Lanak egingo dituzten langileen zerrenda.
 - Langileen RLC eta RNT kotizazio agiriak eta Gizarte Segurantzari kuotak ordaintzen direla ziurtatzen duten agiriak.
- Erantzukizun zibileko polizaren kopia. Bere estaldura gutxienez 300.000 eurokoa izango delarik.
 - Ibilgailuen seguruen kopia.
 - EJZn kontratuak duen helburuari dagokion epigrafean alta emanda dagoela ziurtatu beharko du, horretarako alta edo azken erreziboaren kopia aurkeztu beharko duelarik.
 - Behin betiko bermea eratu duela egiaztatzen duen agiria.
 - Deskribatutako hondakina bildu eta garraiatzeko Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako sailak Hondakin eta Lur kutsatuen 22/2011 Legean jasotako aktibitateak aurrera eramateko beharrezkoak diren baimen eta erregistroen jabetzan dagoela ziurtatzen duten agiria.
 - Tratamendurako beharrezko baimenak

Hirugarrena.- Garbitania Zero Zabor S.M.ko gerenteari ahalmena ematea eskatutako dokumentazioa aurkezten denean kontratua gauzatu dezan.

10 laneguneko epealdiaren barruan Traeco Ingurumena S.M.k eskatutako dokumentazioa eta behin betiko bermea aurkeztu ditu.

Horiek horrela, eta Administrazio Kontseiluak horrela erabakita kontratua esleitzat ematen da eta Traeco Ingurumena S.M.k enpresari jakinarazpen hau jaso eta hamabost lanegun barruan kontratua sinatzera Garbitaniara etortzeko dei egiten zaio.

Eta horrela jasorik gera dadin eta dagozkion ondorioak ekar ditzan, agiri hau egin dut, lehendakariak ikusi eta ontzat hartu duena.

Eta horrela jasorik gera dadin eta dagozkion ondorioak ekar ditzan, agiri hau egin dut, lehendakariak ikusi eta ontzat hartu duena.



Hernanin, 2018ko abenduaren 19an

O.I.

LEHENDAKARIA

A blue ink signature consisting of a large, stylized loop and a horizontal line extending to the right.

IDAZKARIA